

BOST URTE ENKAPUTXATUAK FARRUKAS

Feministas Autónomas Revolucionarias y Ruidosas Unidas Kontra las Agresiones Sexistas

FARRUKAS talde intergenerazional, autonomo eta heterogeneoa da. Gogoeta eta esperientziak elkarbanatzearren bidez borrokarako eta ahalduntzeko tresnak sortzen ari gara. Ez gara kolektibo identitario bat, indarkeria matxisten aurkako borroka da lantzen duguna eta batzen gaituena.

Iruñeko hainbat kolektibo feministek urteak daramatzate Sanferminetako eraso sexisten gaia lantzen. Adibidez, Emakume Internazionalistak, gaurkoan mahai honetan ondoan ditugunak, Eraso Sexisten Aurkako Plataforma, auzoko jaietako lagunak eta beste hainbat kolektibo.

2013ko Sanferminak eta 2014ko Txantreako jaietan emandako eraso sexista inflexio puntutzat hartuta, beste hainbat erasoren artean, baina kasu jakin horretan gure eremuetan izan zen. Horren harira, eraso mota horiei erantzun erradikalago eta sakonago bat ematearen beharra ikusi genuen zenbait feministek, izan kolektiboetakoak izan autonomoak. Horrela indartu zen sugarra.

Lehen asanblada irekia egin zen eta gaur egun FARRUKAS denari forma eta izatea ematen hasi ginen. Gaur egun ere maniak prestatzeko asanbladak irekiak dira.

Zergatik horrelako manifestazio bat?

Aipatu bezala, erasoen aurrean erantzun ezberdin bat eman nahi izan genuen, amorru kolektiboa ateratzeko eta aireztatzeko, urtean behin bakarrik bazen ere. Eremu publikoa hartu: kaleak, gauak, festa... eta emakumeei ukatuak izan zaizkigun jarrerak eraldatzea zen helburua; adibidez, ahula, pasiboa, formala, goxoa, adeitsua, baketsua eta enpatikoa izatea. Horren ordez ukatu zaigun guztia egitea zen helburua: kaputxa eta arropa beltzak janztea, zuziak eramatea, zarata egitea, amorrua, indarra, batasuna eta kolektibilitatea adieraztea. Azken finean, emakume biktimaren irudia aldatu eta emakume aktiboarena, borrokalariarena eta ahaldunduarena indartzea. Gure indarraz jakitun ginen, baina egunerokoan bizi ditugun erasoei egokitzen zaien erantzun bat emateko beharrezko modua iruditu zitzaigun. Estetika eta jarrera horien bidez ezagutarazten dugu geure burua gure agerraldi eta manifestazio publikoetan. Performance horrek biolentzia sinbolikoari erantzuteko balio izateaz gain, emakumeei loturiko estereotipoekin hausteko balio izan digu. Inposatutako arau heteropatriarkalak urratzen dituzten identitate eta subjektibilitate anitzen batura da FARRUKAS.

Zergatik beltzez?

Kolore iluna, gogorra, bortitza delako eta gure presentzia amorruz eta indarrez janzten duelako. Gainera kolore beltza gauarekin lotzen dugu. Izan ere, badirudi gaeuko orduak eremu publikoan erasoak egiteko egokiagoak direla, kaleak hutsago, ilunago daudelako. Gure gorputzaren, eremuaren eta gauaren jabe garela aldarrikatzeko modua da. Beltza gure aldeko bihurtzen da, ez gure aurkako, ez gaude bakarrik gaelean, banakoak izatetik erasoei aurre egiten dien kolektibo izatera igarotzen gara.

Zergatik kaputxarekin?

Impertsonalagoa izateko. Edozein izan daiteke erasotua, guztiok izan gaitezke. Gainera, berdin zaigu nor den, eraso matxisten aurrean gure arteko elkartasuna sustatzen baitugu. Bati eraso eginez gero, denoi egiten digute! Eta batez ere, ukitzen bagaitzute, guztiok erantzunen dugu!

Mundu osoko emakume borrokalariekin identifikatzen dugu gure burua, liderrik gabeko borroka horizontalean sinisten dugu. Haiek bezala, kaputxa jantzi behar izan dugu ikus gaitzaten. Horrela, sistema hau ezaugarritzen duten indibidualismoaren eta indibidualizazioaren aurrean identitate kolektiboa sortzen dugu estrategia gisa. Sistema heteropatriarkalari egiten diogu aurre.

Autodefentsa feministari eman nahi diogu garrantzia, kolektibitatearen ideia indartzen baitu. Ez da aski salatzearekin, benetan bat egin behar dugu elkarrekin, erasotuen lekuan jarri, guztiok hala baikara. Emakumeen eta beste subjektu ez-normatiboen aurkako erasoak gu guztoioi egindako erasoak dira. Sistema matxistak inposatzen digun beldurra gainditu eta biktima eta menpeko rolari buelta emateak taldean ahalduntzen gaitu, ekintzara pasatzeko eta boteretzeko gaitasuna ematen digu, eta guregatik, haiengatik eta guziongatik erantzuteko.

Zergatik erabili da “beldurra aldez aldatuko dugu” esaldia?

Erasotzaileei zuzentzen zaien esaldia da. Eraso matxisten erru osoa emakumeei egozten zaigu. Guk sufritzen ditugu erasoak, guk kudeatu behar ditugu, guk erantzun, salatu eta haien aurka borroka egin. Erregimen heteropatriarkal honetan erantzukizun osoa emakumeengana jartzen da; baita galdera, erantzun, arazo eta ardura guztiak ere.

Noiz hasiko dira gizonak haien maskulinitatea zalantzan jarri eta pribilegioak deseraikitzen? Noiz hartuko dute ardura? Eta gizartea bere osotasunean? Eta bitartean, zer egin? Gu ez gara geldi eta zain egonen, erantzun eginen dugu, defenditu eginen gara eta hori da luzatzen dugun mezua. Ez dugu erasotzailerik nahi, ez dugu inolako erasorik baimenduko, eta hala gertatuz gero, erantzun eginen dugu. Muga bat ezartzen dugu horrela, eta bai, gu ez erasotzeko adinako beldurra senti dezaten nahi dugu.

Horregatik guztiagatik zakarrak deitu gaituzte, baina uste dugu biolentziaren inguruko gure diskursoa ez dutela ongi ulertu. Biolentzia ukatu egin zaigu emakume gisa sozializatuak izan garen horiei. Ez dago baimendua guk sortu ahalko genukeen biolentzia, ezta beltzez janztea, enkaputxatzea eta amorrua adieraztea ere. Ez dute onartzen gure burua defendatzeko erabili ahalko genukeen biolentzia. Ez dago onartua ondare materialaren aurka erabili ahalko genukeen biolentzia, azkenaldiko gure konpa mexikarren mobilizazioetan pentsatuz. Aldiz onartzen da hil gaitzaten, onartzen da estatuak eta sistemak gu guztoioi aurka egiteko sortzen duen biolentzia. Guk egiten duguna geure burua defendatzea da, bai erasotzaileen aurka, bai eta estatua eta bere botere faktikoen aurka ere. Egunero pairatzen dugun biolentziaren aurrean erabiltzen dugu autodefentsa feminista.

Hasiera batean, FARRUKAS sortu zenean, helburu nagusia gaueko edo/eta festa giroko erasoei aurre egitea bazen ere, gure diskursoa garatu eta zabaldu da azken urte hauetan. Batetik, badakigulako eraso gehienak eremu pribatuetan ematen direla eta gertuko gizonak direla erasotzaileak. Bestetik, erasoak ongi pentsatutako eta prestatutako sistemaren isla direla ohartzen garelako, baina feministekin egingo dute topo eta ez gara garaitzen errazak diren etsaiak.

Ibilbidea

2014an izan zen lehen mania, izandako gertakariekin sortutako amorrua izan zen gidari eta antolatzale. Ez genekien zer erantzun izanen zuen maniak: zenbat izango ginen, ibilbidean zehar erasotuak edo gaitzetsiak izanen ote ginen... baina hain zuzen ere, amorruek eman zigun indarra gauaz jabetzeko Sanfermin aurreko gizon giro hartan. Mani horrek garrantzi handia izan zuen. Energia eta elkartasun feministaz betetako babes-mezu ugari jaso genituen, baina kritika askori ere egin behar izan genien aurre, izan kalean izan komunikabideetan. Horri esker kolektiboki eztabaidatu genuen eta diskurtsoa are gehiago berretsi.

2015ean amorruek hor jarraitzen zuen eta aurreko urteko erantzun indartsua ikusirik (1000 pertsona batu ginen gutxi gorabehera), maniaren formatua aurreko bera izan zen, diskurtso berarekin jarraitu genuen, uste genuelako beharrezko zela hura berresten jarraitzea. Energia feministea saretzeko eta indartzeko baliagarria izan zen manifestazio indartsua izan zen.

2016an, kartelean ageri den bezala, argi utzi nahi izan genuen autodefentsa feministaren aldarria egiten genuela, eraso matxisten aurkako borrokan ezinbesteko tresnatzaletatik baitugu. Historia osoan zehar eta gaur egun ere, violentzia erantzun gisa erabili izan da, gorputzearren bidez, eta hori erreferentziatzat hartu dugu. Horregatik gaua, kalea okupatzearen performance-a egin genuen. Argi utzi genuen gure gorputzak baliozko tresna legitimoak direla autodefentsa feministaren praktikan. Maniaren amaieran Navarreria plazako "La Mejillonera" tabernatik eraso bat jasan genuen. Boikot egiten diogu Mejillonera. 2016ean gertatu zen hain zuzen hain mediatikoa izan zen talde-erasoak, mania eta 3 egun beranduago. Manada auzia deitu zuten, guk hala ez deitzea erabaki dugun arren. Urte horretan eztabaida, hausnarketa eta lan kolektibo ugari egin genuen. Lehenik eta behin, kasu horren izendapenaren inguruan. Horrela deitzeak bortxatzaileei indarra ematen diela pentsatzen dugu, pertsonaia mediatiko bihurtzen ditu, heroikak edo gaiztoak. Bortxaketari berari eta erasotuari ere garrantzia kentzen zaio. Gure diskurtsoa zorrotzu genuen, gauean gertatzen diren erasoei aurre egiteaz gain, violentzia mota hori baimentzen duen sistema seinalatu nahi genuen.

2017an betirako eta derrigorrezko biktimizazioaren aurrean intsumisioa aldarrikatu genuen, cis-heteropatriarkatuaren aurrean intsumisak ginen. Kartel horretan hedabideen bidez erasoei egiten zaien trataera salatzen genuen, biktimaren inguruan sortutako imaginarioa eta horrek eragindako morboa, gizarteak zuzenean jasotzen duena. Aurretik ikusitako albisteen bilduma bat egin genuen bideoa sortzeko.

Era berean intsumisioa hautatu genuen mugimendu intsumisoari keinu bat egiteko, Euskal Herrian egindako borroka historiko horren harira.

2018. urtea nahiko gogorra izan zen Iruñeko feministenzat. Kasu mediatizatuaren sententzia atera zenean, gure denborak eta agendak markatu nahi izan zizkiguten bai hedabideek eta baita estatuko mugimendu feministak ere. Baina gu gurera. Cis-heteropatriarkatu kapitalista, kolonialista eta eklesiastikoari intsumisioa aldarrikatzen jarraitu genuen. Udaletxe plazan performance bat egin genuen, ordurarte egindako hausnarketak agerrarako. Ez genuen aldarrikatzen soilik kaleak, gauak eta festak gureak zirela, sistema kapitalistak dakarren guztiari egiten genion kritika: kartzela-sistema eta justizia-sistema; osasun-sistema, diagnostikoak eta tratamenduak; mugak eta CIEak, eliza,

familia eta bere dogmak, estatuko indar zapaltaileak...

Urte harten komunikabideak manian agertu ziren, gure eremua inbadituz eta albiste hori kubritzeak kasu mediatikoarekin izan zezakeen loturaren morboaren bila. Dakigunez urteak zeraman maniak, eta inoiz ez zuen halako garrantzirik izan mass medientzat.

2019an gaeuko mania ez deitza erabaki genuen, azken urteko maniak bere horretan esentzia galdu zuela sentitu baikuenen, gainera momentu honetan gu ere indarrik gabe geunden. Lehen urteetan mania transgresorea zen, aurrekoarekin hausten zuen, baina poliki-poliki normalizatzu joan da, eta beraz ez da "berritzalea" enkaputxatzea, ez eta zuziekin ateratzea. Gainera, jakintzat ematen da urtero aterako dela mania, antolaketa prozesuan eta prestaketen parte hartu gabe, berezko hitzordua dela agenda feministan eta Iruñerriko mugimendu sozialen agendan.

Manifik erradikaltasuna galdu duela uste dugu. Irudi azkarra eta talka eragiten duena sortu nahi dugu. Uste dugu FARRUKASek mahai gainean jarri zuela neskok biolentziari biolentziaz erantzun diezaiokegula; guk hori asmatu ez arren. Gure manifestan azken hau galdu dela sentitzen dugu.

Horrek manien formatuaren inguruan gogoeta egitera garamatza, baita gure militantzia esparruetako feminismoaren inguruan eta sufritzen ditugun erasoaren inguruan ere.

Beste hausnarketa batzuk

2016tik aurrera izan dugun beste eztabaida bat izan da sare-sozialen bitartez antolatutako hitzorduen gorakada. Esate baterako, Sanferminetako talde bortxaketaren sententziaren harira antolatutako hitzordua. Iruñerriko mugimendu feministak eztabaidatu eta hitz egin genuen aurretik, kasu horretan zer gerta zitekeen eta erasotuaren beharrekin bat egiteko asmotan ez genuen ezer antolatu nahi izan kaleetan. Mugimendu feministak sortutako protokoloan beti lehenesten dira erasotuaren beharrak.

Hala ere, ulertzen ditugu adierazpen grinatsu hori eztanda bidez ateratzeko premia eta erantzun azkar baten bapatekotasuna; baina argi utziz proposamen konkretu horrek politikoa izateaz gain, sistema heteropatriarkala jarri behar duela errudunaren aulkian.

Urte harten bertan, 2018ko Sanferminen aurretik beste hitzordu bat finkatu zen, jendea kamiseta beltzkin etor zedin edo are gehiago, festara zuzenean ez etortzeko deia luzatu zen, nahiz eta urtero saiatzen garen festak are feministago eta herrikoago izan daitezzen. Mugimendu feministak deialdi horren inguruan hausnartu behar izan genuen eta guk horrekin zerikusirik ez genuela adierazi. Festa hauet ezagutzen dituztenek badakite kamiseta beltz bat jaztea eta 11:45tan udaletxe plazara sartzea irrealia dela, hori dena ongi antolatu ezean behintzat. Aurreko urtean toki askotako 70 emakume sartu ginen plazara 36 m²-ko pankarta batekin, asko eztabaidatu ondoren eta beste herrialdeekin batu ondoren, txupinazoan ematen ziren erasoei buruz hitz eginez.

Aipatutako adibideengatik, uste dugu "militatzeko modu berri" horrek mezuak errazten dituela eta ardurak desagertzen direla. Ez dira talde-erritmoak errespetatzen eta gure agendak markatzen dituzten beste batzuk inposatzen dira, egoerek erantzun azkarrak eskatzen dituztelako. Badakigu gaur egun asko erabiltzen den tresna dela, baina ez dugu horren aldeko apustu irlorik egiten. Uste dugu era honetan kolektibotasuna galtzen dela, eztabaidak ez direla pertsonalki ematen, eta horrek mugimendua ahuldu eta itzali egiten duela. Asanblearen aldeko apologia egiten dugu, elkar ikusi ahal izateko, diskurtso

kolektiboak sortzeko eta gure eremu seguruetatik sareak josteko.

Biolentzia era ȝberriak?

Horregatik mahai honetara ekarri nahi ditugu mugimendu feministak eta gu geu pairatzen ari garen biolentzia batzuk.

Alde batetik, esan nahi dugu **komunikabideek biolentzia erabiltzen dutela** gure aurka. Mugimendu feministaren lorpenak eta borrokak ikusezin egiten dituzte, eta instituzioei eman. Gainera, biolentzia matxistei buruzko albisteetan erabiltzen duten trataera ezin da baimendu. Garrantzia kentzen diote, biktimizatzen dute, berriz bortxatu eta hiltzen gaituzte.

Bestalde, feminismoa argiki **instituzionalizatu** dela agerikoa da, eta hori bai ikusarazten dela. Uste dugu instituzioek ez dutela sentsibilizazioan jardun beharrik eta “argazkitan atera”, gure ustez dirua baliabide eraginkorragoetan gastatu beharra dago. Biolentziak jasaten dituzten emakumeek bizi duina izan dezaten eta baliabide publikoak eskuragarri izan ditzagun. Profesionalen formakuntza eta arazoa errotik erasotzeko baliabideak. Iruñean ikusi dugu nola saritu zen Udaletxea mugimendu feministari urteetako lanaren ondorioz zor zaion lorpenengatik.

Instituzio sozial-demokrata eta kapitalistak ogi apurrik besterik ez digu ematen. Albisteetan agertu eta argazkia atera nahi badute heldu den azaroaren 25ean ireki ditzatela 25 pisu biolentziei aurre egiten dieten emakumeentzat. Biolentzia instituzionala ere bada.

Intsumisoak gara **Betirako eta Derrigorrezko Biktimizazioaren** aurrean. Biolentziaren beste forma bat dugu hauxe: sistema judizialak polizialak, komunikabideek eta bai kaleko jendeak ere erasoa jasan duten emakumeak ez sinistea. Justizia deituriko ustel usaineko gizon horren bidez, sistema heteropatriarkalak bere osotasunean babesten duen biolentzia da. Sistemak hats-kiratsa dauka hankak ongi ixten ditugun galdetzen diguten bakoitzean; elizak abortatzea bortxaketa baino okerrago dela esaten duenean; hedabideek diskurtso guzti horien berri eman eta gizartean txertatzean.

Horrekin lotuta, esan nahi dugu guk ez diegula inoiz salaketa judizialei apologia aktiborik eginen justizia eta biolentziak pairatu dituzten emakumeen babesleku gisa. Ulertzan dugu emakume askok salaketaren beharra dugula seguruago sentitzeko eta hainbat baliabide lortzeko, eta inolaz ere ez dugu inoren erabakia epaituko. Baina esan nahi dugu guretzat justizia eta konponbidea beste bideetatik ere lor daitezkeela; salaketa sozialaren bidez, bortxatzaleei eta erasotzaileei eskratxeak eginez edota biolentzia horiek publikoki, sozialki eta instituzionalki landuz.

Uste dugu mugimendu feministaren hausnarketa eta aldarrikapen historikoek, autodefentsa feministak kasu, nolabaiteko **onarpen soziala lortu dutela**, nahiz eta jakin aldaketarik ez dela egon, egiturak bere horretan jarraitzen baitu. Kontzientzia hartze sozial hori positibotzat dugu, nahiz eta mugimenduaren lana ikusezin bilakatzea dakarren. Gaur egun autodefentsa feministak gutako askoren parte da, tresna erabilgarri eta legitimo gisa. Hala ere, azken aldian ikusi dugunez, autodefentsaren bidezko erantzunek askotan erantzun bortitzagoa ere jasan izan dute. Gainera, gure inguruan sumatu dugu guk erantzun izan dugun aldi batzuetan, gizonek ere erabateko legitimitatea sentitzen dutela haien ere erantzuteko, edo gu babesteko, nola gauden edo laguntza behar dugun galdetu ere egin gabe, alegia, autodefentsa feministarekin zerikusirik izan gabe.

Mugimendu feministak deituriko kontzentrek eta manifik plazak jendez lepo betetzen dituzte. Badakigu hitzordu horietara hurbiltzen diren batzuk erasotzaileak direla, lema

feministak oihukatzen ausartzen diren batzuk barne. Erasoak gure eremuetan ere ematen direla ikusten dugu, eta haien burua aliatutzat duten gizonek **ez dituztela pribilechioak birpentsatzen**, are gehiago, diskurso feministak barneratzen dute eta horrela hurbilpen eta "alianzia" horren bidez lortutako onurak gozatu. Hori ere biolentzia da.

Guk pentsatzen dugu, mugimendu feministak urtez urte esan duen bezala, gizonak potentzialki erasotzaileak direla eta ez gaudela pedagogia egiteko prest.

Gainera, gaur egun feministen arteko sailkapena ematen dela uste dugu. Izan gure antolatzeko moduaren arabera edo biolentzia matxista salatzeko eraren arabera: feministak onak, berdintasuna nahi dutenak, gizonak gorroto ez dituztenak, eta feministak txarrak, gaizki follatuak, erasoei erantzuten diegunak, erasotzailea publikoki salatzen dugunak, isiltzen ez garenak eta nahi duguna egiten dugunak. Gu txarrak gara eta okerragoak izatera bidean gaude.

Ohartu zarete zenbat aldiz aipatu ditugun emakumeen eta mugimendu feministaren aurka ematen diren biolentziak?

Mahai honen izena da: "Biolentziarik gabeko bizitzak eraikitzen", eta ez, guk ere ez dugu biolentziarik nahi gure bizitzetan, baina bitartean gure errealtitatetik nola jokatu beharko genuke zoriontasuna merezi duten biziak lortzeko? zein da alternatiba askatzalea?

Sistemak gusan biolentzia sortzen duen unetik (mugak, sistema judiziala, osasun sistema, etab.) autodefentsa feministak eta geure buruak defendatzeko behar dugun guztia erabiltzen jarraituko dugu. Noski, erantzuteko ahaldundua egoteak implizituki arrisku batzuk eta bueltan biolentzia gehiago jasateko aukera dakar. Hala eta guztiz ere, guk orain eta beti apostu irmoa egiten dugu autodefentsa feministaren alde, antolakuntza eta kolektibotasunaren alde, espazio publikoaren okupazioaren alde (baita pribaturen bat ere). Eta Raquel Gutiérrezek dioen bezala " Landu ditzagun gure gertutasunak eta gestiona ditzagun gure distantziak".

OHARRAK:

Beharrezkoa iruditzen zaigu argitzea emakume terminoa erabiltzen dugunean emakume*, bollera eta trans*-ei egiten diegula.

Ponentzian aipatzen diren kartel eta bideoak hemen aurkitu ahal dira:

Blog

<https://farrukas.noblogs.org/>

Youtube

https://www.youtube.com/channel/UC4KN2_d_sX9Fjvn5a05x68w

CINCO AÑOS ENCAPUCHADAS FARRUKAS

Feministas Autónomas Revolucionarias y Ruidosas Unidas Kontra las Agresiones Sexistas

FARRUKAS somos un grupo intergeneracional y heterogéneo, autónomo que al juntarnos y compartir nuestras experiencias y reflexiones, estamos creando herramientas de empoderamiento y de lucha. No somos un colectivo identitario, más bien lo que nos une y en lo que trabajamos es la lucha contra las violencias machistas.

Diferentes colectivos feministas de Iruña, llevan años trabajando el tema de las agresiones sexistas en Sanfermines. Por ejemplo, Emakume Internazionalistak, que nos acompañan hoy en esta mesa, la Plataforma Contra las Agresiones Sexistas, las compas en las fiestas de sus barrios y muchos otros colectivos.

Tomando como punto de inflexión los Sanfermines de 2013 y las agresiones ocurridas en jaias de la Txantrea de 2014, que no fueron las únicas, pero que tuvieron la particularidad de darse en nuestros espacios, un grupo de feministas de diferentes colectivos y autónomas, vimos la necesidad de dar una respuesta más contundente y radical a este tipo de agresiones. Y se prendió la mecha.

Se hizo una primera asamblea abierta y le empezamos a dar forma y a materializar lo que hoy en día somos FARRUKAS. A día de hoy las asambleas para la organización de las manis siguen siendo abiertas.

¿Por qué una mani así?

Tal y como hemos comentado, quisimos dar una respuesta diferente a las agresiones para sacar la rabia colectiva y sanarla aunque sea un ratito al año. Ocupar los espacios públicos, las calles, la noche, la fiesta y transformar actitudes asociadas a las mujeres como el ser débiles, pasivas, formales, dulces, complacientes, apacibles y empáticas, transitando hacia todo lo que se nos ha negado: ir encapuchadas, vestidas de negro, con antorchas, haciendo ruido, expresando rabia, fuerza, unidad, colectividad. Al fin y al cabo lo que necesitamos es cambiar la imagen de mujer víctima a mujer activa, combativa, empoderada. Éramos conscientes de nuestra fuerza, pero nos parecía necesario hacerlo de esta manera para poder dar una respuesta acorde a las agresiones que vivimos en nuestro día a día. Esta estética y actitud nos caracterizan en todas nuestras apariciones y manifestaciones públicas. Esa performatividad nos ha permitido también responder a la violencia simbólica y romper con los estereotipos asignados a las mujeres. Entendemos FARRUKAS como un conjunto de identidades y subjetividades diversas que desobedecen a las normas heteropatriarcales impuestas.

¿Por qué de negro?

Porque es un color duro, oscuro, potente, que hace que nuestra presencia sea de rabia y de fuerza. Además identificamos el color negro con la noche, y en los espacios públicos parece

que las horas en las que la luz decae son más propicias para cometer agresiones por aquello de que las calles están más vacías, más oscuras... Es una forma de hacer entender que nos apropiamos de la noche, del espacio, de nuestro cuerpo. El negro se vuelve a nuestro favor, no en nuestra contra, no estamos solas en la noche, pasamos de ser individuas a ser un colectivo que responde a las agresiones.

¿Por qué encapuchadas?

Porque es una manera de impersonalizar, cualquiera puede ser agredida, podemos ser todas; pero es que además, nos da igual quién sea, nuestra premisa es la solidaridad entre nosotras ante las agresiones machistas. ¡Si tocan a una nos tocan a todas! Y sobre todo, ¡si nos tocan a una respondemos todas!

Nos identificamos con las guerrilleras, creemos en una lucha horizontal sin líder. Al igual que ellas, nos hemos tenido que encapuchar para que se nos vea. De este modo, creamos una identidad colectiva como estrategia contra el individualismo y la individualización que caracterizan el sistema actual. Además hacemos frente al sistema heteropatriarcal.

Queremos resaltar aquí el valor de la autodefensa feminista, que refuerza la idea de colectividad. No basta con denunciar, tenemos que solidarizarnos entre nosotras de verdad, ponernos en el lugar de las que somos agredidas, que en verdad somos todas. La agresiones contra las mujeres y otros sujetos no normativos son agresiones contra todas nosotras. Vencer el miedo que el sistema machista nos inculca y subvertir el rol de víctimas y sumisas significa empoderarnos en colectivo, adueñarnos de nuestra capacidad de acción, de nuestro poder, y estar dispuestas a responder, por nosotras, por ellas, por todas.

¿Por qué la frase “el miedo va a cambiar de bando”?

Es una interpelación directa a los agresores. A las mujeres se nos echa toda la culpa de la agresiones machistas. Nosotras sufrimos las agresiones, las tenemos que gestionar, responder, denunciar y luchar contra ellas. En este régimen heteropatriarcal todo el peso, todas las preguntas, todas las respuestas, todos los problemas y las responsabilidades están en el lado de las mujeres.

¿Cuándo van a empezar los tíos a cuestionar su masculinidad y a deponer sus privilegios? ¿Cuándo se van a responsabilizar? ¿Cuándo la sociedad en su conjunto? ¿Y mientras, qué hacemos? Nosotras no nos vamos a quedar paradas a la espera, vamos a actuar, vamos a responder, vamos a defendernos y este es el mensaje que lanzamos. No queremos agresores, no vamos a permitir ninguna agresión, y si ocurre, vamos a responder. Con esto marcamos un límite y sí, queremos que tengan el miedo suficiente para que no nos agredan.

Por todo esto que venimos contando nos han llamado violentas pero creemos que nuestro discurso entorno a la violencia no se ha entendido. La violencia es algo que se nos ha negado a las que hemos sido socializadas como mujeres. No está aceptada la violencia que

nosotras podemos llegar a ejercer, ir vestidas de negro, encapuchadas y mostrando nuestra rabia. No está aceptada la violencia que podemos llegar a ejercer para defendernos. No está aceptada la violencia que podemos llegar a ejercer contra el patrimonio material, como la criminalización que han vivido nuestras compañeras mexicanas en las últimas movilizaciones. Pero si está aceptado que nos maten, está aceptada la violencia que genera el estado contra nosotras, la que genera el sistema. Nosotras lo que decimos es que todo lo que hacemos es legítima defensa, tanto contra los agresores, como contra el estado y sus poderes fácticos. Utilizamos la autodefensa feminista como respuesta a la violencia que sufrimos en el día a día.

Aunque cuando surgió FARRUKAS el tema central era responder de una manera más contundente a las agresiones que se daban en la noche y/o en el contexto festivo, nuestro discurso ha ido cambiando y ampliándose en estos años. Por una parte, porque sabemos que la mayoría de agresiones se dan en el espacio privado y por hombres cercanos. Por otra, porque entendemos que las agresiones sólo son la muestra de todo un sistema que funciona como un perfecto engranaje, pero que ha encontrado en las feministas unas enemigas difíciles de combatir.

Recorrido

En 2014 fué la primera mani, este año nos organizó la rabia por los hechos ocurridos. No sabíamos qué respuesta tendría la convocatoria: cuántas seríamos, si nos iban a increpar o agredir durante el recorrido... Pero precisamente esa rabia nos dió la fuerza para ocupar la noche en un contexto presanferminero de lo más matxirulil. Esta mani fue un antes y un después. Nos llegaron muchos mensajes de apoyo, llenos de energía y solidaridad feminista, pero también tuvimos que hacer frente a muchas críticas, tanto en la calle como en los medios de desinformación. Y todo esto hizo que debatiésemos colectivamente y nos reafirmáramos, también a día de hoy, en nuestro discurso y prácticas.

En 2015 la rabia seguía latente y viendo la contundente respuesta del año anterior (fuimos aprox. 1000), el formato de la mani fue el mismo, seguimos con el mismo discurso porque nos parecía que era necesario seguir afirmándonos en el mismo. Volvió a ser una mani llena de fuerza, energía feminista que permitió reforzar y tejer redes.

En el año 2016, tal y como se ve en el cartel, queríamos dejar claro que apostamos por la autodefensa feminista como herramienta fundamental en la lucha contra las agresiones machistas. A lo largo de la historia y en la actualidad, hay muchas mujeres y pueblos que han utilizado la violencia como respuesta, concretamente a través del cuerpo, lo cual nos ha servido como referencia. Por ello ese año hicimos una performance ocupando la noche, y la calle, dejando claro que nuestros cuerpos son una herramienta válida y legítima en la práctica de la autodefensa feminista. Durante la misma, vivimos una agresión por parte de los camareros del conocido bar “La Mejillonera” en Navarrería. Boikot a la cadena Mejillonera.

Fue precisamente en los sanfermines de 2016, 3 días después de la mani, cuando ocurrió la agresión múltiple y grupal tan mediatisada, que se denominó el caso de la manada, pero

que nosotras decidimos no nombrarla así. Ese año tuvimos muchos debates, reflexiones y sobre todo, mucho trabajo colectivo. Lo primero que hicimos fue hablar sobre la denominación de este caso. Sentimos que llamarlo así les da poder a los violadores, les convierte en personajes mediáticos, héroes o villanos. No se le da tanta importancia a la violación en sí, y sobretodo a la mujer que había sido agredida. Empezamos a darle otra vuelta de tuerca a nuestro discurso, necesitábamos señalar y combatir las agresiones que ocurren en la noche pero apuntando, claramente al sistema que genera y permite estas violencias.

En 2017 nos declaramos insumisas a la victimización permanente obligatoria, nos declaramos insumisas al cisgenderopatriarcado. En este cartel hacemos una crítica rotunda al tratamiento de las agresiones que hacen los medios de comunicación, el imaginario creado en torno a la víctima, el morbo que impregna ese circuito, y que la sociedad evidentemente acoge. Hacemos un video recopilatorio con fragmentos de noticias que hemos visto antes. Nos declaramos insumisas también porque queríamos hacer un guiño al movimiento de insumisión y a las compas insumisas por la gran lucha que hicieron en Euskal Herria.

2018 es un año bastante duro para las feministas en Iruña. Tras la sentencia del mediatizado caso, tanto el movimiento feminista del estado, como los medios de comunicación intentan marcar nuestra agenda. Pero nosotras seguimos a lo nuestro. Seguimos con la insumisión al cisgenderopatriarcado capitalista colonialista y eclesiástico. Hicimos una performance en la plaza del ayuntamiento en la que plasmamos las reflexiones hechas hasta el momento, donde no solo se reivindica que la calle, la fiesta y la noche son nuestras, sino que también hacemos crítica al sistema capitalista con todo lo que engloba: sistema penal y carcelario; sistema de salud, diagnóstico y tratamientos; fronteras y CIEs, la iglesia, la familia y sus dogmas, las fuerzas represoras del estable...

Ese año además, los medios de comunicación aparecen en la manifestación nocturna, siendo invasivos y en búsqueda del morbo que pudiera tener cubrir esa noticia si lo relacionaban con el tan mediático caso. Como sabemos, era una mani que llevaba años haciendo pero que apenas había tenido relevancia para los mass media.

Llegamos a 2019, este año decidimos no convocar la manifestación nocturna, ya que en la última convocatoria sentimos que la mani como tal había perdido su esencia, además nosotras en ese momento estábamos sin fuerzas. En los primeros años el formato de esta mani resultaba transgresor, rompedor, pero poco a poco se ha ido normalizando y por tanto ya no es algo “novedoso” encapucharse, ni salir con las antorchas, se da por hecho que la convocatoria sale cada año, sin implicarse en el proceso de organización y preparación, se da por hecho que es un evento dentro de la agenda del movimiento feminista y/o movimiento social de Iruña.

Sentimos que la mani ha perdido radicalidad. Queremos responder desde una imagen fuerte, de impacto. Sentimos que Farrukas volvió a poner encima de la mesa que las tías podemos responder con violencia a la violencia; algo que nosotras no hemos inventado. Y sentimos que esto, en nuestras manis se ha perdido.

Esto nos lleva a reflexionar sobre este formato de manis, sobre el feminismo en nuestros espacios de militancia y sobre las violencias que sufrimos.

Otras reflexiones

Uno de los debates que hemos tenido desde el 2016 ha sido el auge de convocatorias organizadas a través de las redes sociales. Una de ellas fue la convocatoria tras anunciararse la sentencia de la violación múltiple de sanfermines. En el movimiento feminista de Iruña ya habíamos estado reflexionando y hablando sobre qué generaría ésta, y queríamos cumplir con las necesidades de la chica agredida de no hacer nada en las calles. En el protocolo elaborado por el movimiento feminista siempre se prioriza las necesidades de la mujer agredida.

Aún así entendemos que esa muestra y efervescencia de la rabia contenida era necesario sacarla y requería una respuesta inmediata pero desde una organización que permitiera canalizarla en propuestas concretas y políticas que apuntaran al sistema heteropatriarcal como el máximo culpable de estas situaciones.

Ese mismo año, en los previos de sanfermin 2018 surgió otra convocatoria de venir con camisetas negras o incluso el boicot a unas fiestas que intentamos que sean cada año más feministas y populares. El movimiento feminista tuvimos que debatir sobre esto y desmentir que fuese una convocatoria nuestra, evidentemente quien conoce estas fiestas sabe que el hecho de colocarse una camiseta negra e intentar entrar en la plaza del ayto a las 11.45 es algo irreal, además de los riesgos que conlleva sin estar organizado. El año anterior habíamos entrado 70 tías de diferentes procedencias a la plaza con una pancarta de 36 m² después de muchos meses de debates, reuniones con otros herrialdes y en la que sufrimos agresiones por los machos que teníamos alrededor.

Por ejemplos como estos, pensamos que esta “nueva forma de militancia” facilita que los mensajes y las responsabilidades se diluyan, no se respetan los ritmos de los grupos y se imponen otros que marcan nuestras agendas, porque las situaciones requieren una respuesta inmediata. Sabemos que a día de hoy son una herramienta cada vez más utilizada pero no apostamos únicamente por ella. Creemos que esta forma, no permite hacer colectivo, los debates no se dan personalmente y es una forma que divide el movimiento y en parte lo apaga. Por eso nosotras hacemos una apología del asamblearismo, para poder vernos, crear discursos colectivos, acuerparnos y tejer redes desde estos espacios seguros y nuestros.

¿Nuevas? formas de violencia

Es por ello que queremos traer a esta mesa algunas de las diferentes violencias que vemos que está sufriendo el movimiento feminista y nosotras como militantes feministas.

Por una parte queremos decir que los **medios de comunicación ejercen violencia** contra nosotras. Invisibilizan las luchas y logros del movimiento feminista, atribuyéndoselas a las instituciones. Además el tratamiento que hacen de las noticias sobre las violencias machistas, degradan, victimizan, hieren, nos vuelven a violar y nos vuelven a asesinar.

Por otra parte vemos como en la actualidad se ha producido una evidente **institucionalización** del feminismo, que éste sí se visibiliza. Pensamos que las instituciones no tienen que hacer sensibilización y “hacerse la foto”, nosotras creemos que el dinero se tiene que invertir en recursos realmente eficaces. Recursos para que las mujeres que estamos viviendo violencias tengan acceso a una vida digna, básicamente que los recursos públicos estén a nuestro alcance. Formación a profesionales y recursos para atacar al problema de raíz. En Iruña hemos tenido que ver cómo al Ayuntamiento se le premió por unos logros que fueron fruto del trabajo de años del movimiento feminista.

Desde las instituciones social-demócratas y capitalistas nos dan solo migajas. Si quieren salir en prensa y hacerse una foto que el próximo 25 de noviembre abran 25 pisos para mujeres que afrontamos violencias. Nosotras decimos que esto es **violencia institucional**.

Nos volvemos a declarar Insumisas a la **Victimización Permanente Obligatoria**. A través del sistema judicial, policial, los medios de desinformación e incluso la gente de la calle, siguen cuestionando a las mujeres agredidas, lo cual es otra forma de violencia. Una violencia que la sustenta el sistema heteropatriarcal en su conjunto, desde la justicia, que es un señor que huele a rancio; y le huele el aliento cada vez que nos pregunta si cerramos bien las piernas; la iglesia diciendo que es peor un aborto que una violación; los medios de comunicación dando voz a todos estos discursos y que llegan y se reproducen en la sociedad.

Unido a esto queremos decir que nosotras nunca vamos a hacer una apología activa a la denuncia judicial como método de justicia y reparación para las mujeres que hemos vivido violencias. Entendemos que muchas mujeres podamos necesitar esa denuncia judicial para sentirnos más seguras y poder acceder a diferentes recursos, y que quede claro, nunca vamos a cuestionar las decisiones de ninguna. Pero queremos decir que para nosotras la justicia y reparación también pueden venir por otros caminos; como puede ser la denuncia social, los escraches a los violadores y maltratadores y/o el reconocimiento público, social e institucional de estas violencias.

Creemos que las reflexiones e históricas reivindicaciones del movimiento feminista, así como la autodefensa feminista han adquirido **cierta aceptación social**, aunque sabemos que no ha habido cambios, la estructura sigue operando. Vemos positivo el nivel de conciencia adquirida socialmente aunque este lleve implícito cierta invisibilización del trabajo de muchas compañeras feministas. A día de hoy muchas mujeres vemos como propia la autodefensa feminista, como una herramienta válida y legítima. No obstante, hemos observado que últimamente, al responder mediante la autodefensa feminista a las agresiones, en vez de detenerlas, en muchas ocasiones se recibe una respuesta más violenta si cabe. Además en nuestros entornos también observamos que los hombres, en algunas situaciones en las que nosotras respondemos, se sienten legítimos para defendernos sin ni siquiera preguntarnos cómo estamos, ni si necesitamos ayuda, es decir sin tener nada que ver con la autodefensa feminista.

Del mismo modo, las concentraciones y manifestaciones que se organizan por el movimiento feminista en repulsa a las agresiones ahora llenan plazas. Sabemos que entre

los asistentes a estas convocatorias hay agresores que incluso se atreven a gritar lemas feministas.

Vemos que las agresiones siguen sucediendo también en nuestros espacios, y que los hombres que se dicen aliados **no se cuestionan sus privilegios**, sino que más bien tienden a adoptar el discurso feminista para sacar beneficios del posible acercamiento que se pueda producir con esta supuesta “alianza”. Esto también es violencia.

Y nosotras pensamos que, como algunas feministas siempre han dicho, los hombres son potencialmente agresores y no estamos dispuestas a hacer pedagogía.

Además en la actualidad se está dando una clasificación de las feministas, dependiendo la forma de organizarnos y de denunciar la violencia machista, entre feministas buenas, las que quieren la igualdad, las que no odian a los hombres, y las feministas malas, las malfolladas, las que respondemos a las agresiones, las que denunciamos públicamente al agresor, las que no nos callamos, las que hacen lo que les sale del coño. Nosotras somos de las malas y queremos ser peores.

¿Os habéis fijado en cuántas veces hemos nombrado las violencias que se ejercen contra las mujeres y contra el movimiento feminista?

Esta mesa se llama “Construyendo Vidas sin violencias”, y no, nosotras tampoco queremos violencia en nuestras vidas, pero mientras tanto nosotras con nuestras realidades, ¿cómo deberíamos actuar para poder vivir una vida que merezca la alegría? ¿Cuál es la alternativa libertaria?

Mientras el sistema siga ejerciendo violencia sobre nosotras (fronteras, sistema judicial, sistema sanitario, etc) seguiremos utilizando la autodefensa feminista y lo que haga falta para defendernos, e insistimos...Estar empoderadas para responder conlleva unos riesgos y posible violencia de vuelta.Y aún y todo, nosotras apostamos ahora y siempre por la autodefensa feminista, la autoorganización y la colectividad, la okupación de los espacios públicos (y algún que otro privado, jeje). Y cómo dice nuestra compañera Raquel Gutiérrez “ Cultivemos las cercanías y gestionemos nuestras distancias”.

Notas:

Nos parece necesario aclarar que hablaremos de mujeres refiriéndonos a mujeres*, bollerías y trans*.

Los carteles y videos que se nombran durante la ponencia se pueden ver aquí:

Blog

<https://farrukas.noblogs.org/>

Canal Youtube

https://www.youtube.com/channel/UC4KN2_d_sX9Ejvn5a05x68w